

Iñaki Larrea, lehen doktorea HUHEZIKo doktoretza programaren barruan

2007/12/05

Abenduaren 5ean, Iñaki Larreak **bikain cum laude** kalifikazioa lortu du bere doktore tesia HUHEZI fakultatean aurkeztu duenean. Egun seinalatua izan da HUHEZIn, hauxe izan delako **lehen doktorea orain lau urte hasitako doktore tesien programan**.

Goizeko 11:30ak jota hasi da Iñaki Larrea bere tesia aurkezten: **“0-3 urteko haurren garapena eta eskola”** Aurrean entzule asko zituen, eta epaimahaikideak: Luisa Reizabal EHUko Psikologia fakultateko irakaslea izan da epaimahaiburu. Bere ondoan, Rafel Cristobal HUHEZIKo irakaslea, Fernando Olabarrieta EHUko Psikologia fakultatekoa, Joserra Vitoria HUHEZIKoa eta Iñaki Garcia, hau ere HUHEZIKoa. Entzuleen artean, berriz, Alexander Barandiaran irakaslea eta tesi horren zuzendaria.

Bere ikerketa lana egiteko, Iñaki Larreak **EAEko 875 haur** aztertu ditu, **62 ikasgelatan** banatuta. Denak, noski, 0-3 urte artekoak. Ikerketa honetan ondorio nagusi bat atera du: erlazio estua dagoela eskolaren kalitatearen eta haurren garapenaren artean.

Epaimahaikideek goratu egin dute Iñaki Larreak egindako lana, eta aho batez erabaki dute beroni **bikain cum laude** kalifikazioa ematea.

Iñaki Larrea

Iñaki mondragoetarra da, 2001ean Hezkuntza Berezian diplomatu zen, 2003an Psikopedagogian lizentziatu zen, eta harrezkero Hazitegi proiektuan egin du lan Eusko Jaurlaritzaren beka bati esker. Doktore tesi hau, hain zuzen, **Hazitegi** proiektuan kokatzen da.

